



## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2025EKO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

---

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta landu da, bat etorrita Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 20. artikulua —martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; hemendik aurrera, Berdintasunerako Legea— Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumenarekin.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Berdintasunerako Legearen 20. artikulua, bai, halaber, generoaren arabera eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak —Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioaren bidez onetsi ziren—, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da.

Beraz, xedapen arauemaile orokorra da, eta generoaren arabera zer eragin duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 atalean ezarritakoarekin bat etorritik. Horri begira, generoaren arabera eraginari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. ataletan aurreikusitakoaren arabera.

Egiaztatu dugu bete egin direla Berdintasunerako Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren arabera eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Ogasun eta Finantza Sailak eraginari buruz egindako txostenaren antzera, erakunde honek uste du komeni dela Berdintasunerako Legean jasotako funtsezko alderdiak aipatzea, EAEn berdintasun-politikak gauzatzeko erreferentziazko arau-esparrua delako eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jarduna gidatu

behar duten printzipio orokorrak ezartzea duelako helburu, besteak beste, euskal aurrekontu publikoei dagozkienak.

Hala, Berdintasunerako Legeak honako betebeharrak hauek ezartzen ditu, besteak beste:

- *Euskal aginte publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan (...).*
- *Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute aurrekontu publikoetan, bereziki diseinu-fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako berdintasun-erazak ezabatzen laguntzeko (...).*
- *EAEko Administrazio publikoak modu aktiboan eta progresiboan sustatuko du EAEko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea.*
- *EAEk pixkanaka handituko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika bideratutako aurrekontuaren ehunekoa, 2030erako aurrekontu orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 1,5 izan daitezen gutxienez. Nolanahi ere, aurrekontu-helburu hori aurretik gauzatu ahal izango da.*

Era berean, 11. artikuluan jasotako funtsezko alderdi bat nabarmendu nahi dugu.

- *Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean zuzendaritza edo administrazio-unitate bat egongo da, eginkizun hauek betetzeko: sailtako zuzendaritza eta arloak eta atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlanean aritzea, horrela lege honetan eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun-planeari xedatutakoa betetzeko.*
- *EAEko Administrazioari atxikitako edota lotutako erakunde autonomo eta bestelako erakunde publikoek, 50 langile baino gehiago badituzte, lege honetan eta 16. artikuluan 1. apartatuan zehaztutako berdintasun-planeari jasotzen diren neurriak bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitateak izan beharko dituzte, eta horretarako euren egiturak egokitu beharko dituzte.*

Aurrekontuen Legearen aurreproiektuaren eraginari buruzko txostenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta

bermatzeko duen konpromisoa nabarmendu behar da, aurrekontua genero-ikuspegiarekin egin eta garatu baitu.

Helburu hori betetzeko, eta administrazio-prozedura arruntaren baitan, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek, EITB taldeak, Osakidetzak, SPRI taldeak, URAk eta IHOBek txosten bat bidali diote Ogasun eta Finantza Sailari. Txosten horretan, datorren ekitaldian berdintasunaren arloan jarduteko lehentasunak zein izango diren azaltzen da; horiek izango dira, hain zuzen ere, Sailak generoaren araberako eraginaren txostena egiteko aztertuko dituen funtsezko elementuak.

Eraginari buruzko txostenak, alde batetik, aurrekontu-programen araberako jarduketan generoaren araberako eraginaren eta horren aurrekontu-eraginaren azterketa jasotzen du, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzarentzat giltzarritzat jotzen diren eta lehentasunezko ardatz komun diren jarduketa batzuk jasotzen ditu: Soldata-arrakalaren aurkako Plana eta EAEko Berdintasunerako VII. Planaren III. Esku-hartze Ardatza (Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak).

Emakundek nabarmendu nahi du aurrekontu orokorrak egiteko administrazio-prozeduran genero-ikuspegia txertatzeko lan egin duela Ogasun eta Finantza Sailak, eta konpromiso eta lidergo politikoak sendotzen eta inplikaturako alderdiek egiten dituzten lan teknikoko estrategiak eratzen jarraitu duela.

Jarraian, generoaren araberako eraginari buruzko txostenean jasotako zenbait alderdi aipatuko ditugu labur-labur:

### ***EAEko diagnostiko sozioekonomikoa***

Atal honetan, EAEko emakumeen eta gizonen egoera sozioekonomiko diferentzialaren diagnostikoa egin da, bai eta honako eremu hauetan dauden genero-arrakala nagusien diagnostikoa ere: osasuna, hezkuntza, ordaindutako lana, zaintza-lana, aniztasuna eta bizikidetzak, emakumeen aurkako indarkeria matxista, pobrezia eta gizarte-bazterketa, eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea. Era berean, EAEko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen gastuak aztertu dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eginkizunak dituzten teknikariak barne; baita sailen gastuetarako aurrekontu-programak eta antzemandako desberdintasunak neutralizatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurri gisa hartuko diren jarduketak ere.

Jakina denez, EAEko gizartearen errealitatea ezagutzea funtsezkoa da egon daitezkeen genero-desberdintasunak hautemateko eta, horrela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko fenomeno unibertsal hori zuzendu eta murriztuko duten neurriak hartzeko.

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako sailetan eta erakunde autonomoetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako eginkizunak dituzten teknikarien presentzia eta lan-egoera aztertuko ditugu. Garrantzitsua da alderdi hori nabarmentzea, 2025eko ekitaldirako aurrekontu horiek legegintzaldi berriko lehenengo aurrekontuak baitira, XIII. Legegintzaldikoak, hain zuzen. Legegintzaldi honetan, Administrazio Orokorraren sailen egitura eta sailen arteko eskumen-banaketa egokitu dira, eta hamalau sail izango dira, aurreko legegintzaldian baino hiru gehiago.

Eraginari buruzko txostenean adierazi bezala, gaur egun berdintasunerako administrazio-unitate bat duten sailak eta erakunde autonomoak honako hauek dira:

- Lehendakaritza
- Kultura eta Hizkuntza Politika
- Ekonomia, Lana eta Enplegua
- Ogasuna eta Finantzak
- Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua
- Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna
- Segurtasuna
- Hezkuntza
- Osasuna
- Etxebizitza eta Hiri Agenda
- Turismoa. Merkataritza eta Kontsumoa
- Justizia eta Giza Eskubideak
- Emakunde
- Lanbide
- OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
- IVAP – Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea
- HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia
- Osakidetza – Euskal osasun-zerbitzua

- EITB – Euskal Irrati Telebista
- ETS – Euskal Trenbide Sarea

Behean adierazitako 50 langile baino gehiagoko sailek eta erakunde autonomoek ez dute berdintasunerako administrazio-unitaterik:

- Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa<sup>1</sup>
- Mugikortasun jasangarria
- Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza
- Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza
- SPRI – Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia
- EEE – Energiaren Euskal Erakundea
- URA – Uraren Euskal Agentzia

Eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 11. artikulua arabera, beren egiturak egokitu behar dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean aurreikusitako neurriak betearaztea sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko diren administrazio-unitateak edukitzeko.

Eraginari buruzko txostenean jasotakoaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko dedikazio eskusiboa duen kolektiboaren I. kapituluak estaltzeko aurrekontua 2.300.000 €-koa da, sail berri bakoitzeko berdintasun-arloko lanpostu tekniko bat barne (2024ko aurrekontuan 2.000.000 €-ko partida zegoen).

### **Sailen gastuari eta haien gastuaren aurrekontu-programei buruzko azterketa.**

Eraginari buruzko txostenak EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu banakatuak (1etik 16ra) eta aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka) ematen ditu, baita Osakidetza, EITBren, SPRI taldearen eta URAREN aurrekontuen azterketa ere.

Beren politika publikoak gauzatzeko, sailek (1-16 atalak, EAEko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuei egindako transferentziak deskontatuta) aurrekontu osoaren % 92,07 jasoko dute.

Aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 57,1), Osasun Sailean (% 80 Osakidetzarako) eta Hezkuntza Sailean eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailean biltzen da.

---

<sup>1</sup> Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikitako berdintasunerako teknikari bat du; emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan dihardu.

2025erako, aurrekontu bateratuei buruz egiten den azterketa honela banatzen da<sup>2</sup>:

- Eusko Jaurlaritzako sailak: 7.730.963.370 €.
- Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako erakunde autonomoek eta partzuergoek 1.408.301.563 €-ko zenbatekoa dute.
- EITBren administrazio-aurrekontua 209.029.553 €-koa da.
- SPRI taldearen administrazio-aurrekontua 112.679.767 €-koa da.
- UR Aren administrazio-aurrekontua 64.726.969 €-koa da.

Laburbilduz, eraginari buruzko txostenean aztertutako aurrekontua EAEko aurrekontu osoaren % **86,2** da, 2024an aztertutako aurrekontua baino bi puntu txikiagoa.

Aurrekontu-programak generoarekiko duen loturari<sup>3</sup> dagokionez, txostenak zera azpimarratzen du: aztertutako aurrekontu-programen aurrekontuaren % 99,3 jo da generoarekin lotutako gaitzat. Horietatik % 84,2, 2024ko aurrekontuen aldean zazpi puntu gehiago, garrantzi<sup>4</sup> handikotzat jo da, eta, aldiz, % 12,8 erdi mailako garrantzikotzat.

**Datu horiek, beste behin ere, agerian uzten dute aurrekontuetan ez dagoela genero-neutraltasunik programen ehuneko oso handi batean.**

### **Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategia**

Soldata-arrakalaren aurkako jarduketek aurrekontua 108.162.413 €-koa da guztira, hau da, sailek eta erakunde autonomoek eta partzuergoek aztertutako aurrekontuaren % 1,2 eta EAEko gastuen guztizko aurrekontuaren % 0,7.

Soldata-arraila murrizteko jarduketengatik nabarmentzen diren sailak honako hauek dira: Hezkuntza Saila (desberdintasun hori desagerraraztera bideratutako aurrekontu osoaren % 89,86), 2023-2024 ikasturteaz geroztik jarduketa bat eskaintzen baitu, Haurreskolak

---

<sup>2</sup>EAEko aurrekontu orokorra faseka aztertzean datza Ekonomia eta Ogasun Sailaren estrategia. Azterketetan sakontzen den heinean eta genero-ikuspegia duen aurrekontu-prozesua sendotzen den heinean, handitu egingo da aztertu beharreko aurrekontu kopurua. Aurkeztutako datu horiek aztertu beharreko aurrekontu-moduen edo -munten parte dira.

<sup>3</sup> Programa bat generoari lotutako gaia da, baldin eta azken talde hartzailea pertsona fisikoak, juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuk badira eta/edo emakumeen eta gizonen bizi-baldintzei zuzenean edo zeharka eragiten badie.

<sup>4</sup> Aurrekontu-programaren helburuek generoan duten garrantziak bi irizpide hartzen ditu kontuan: xede-biztanleria eta aldatzeko potentzialtasuna edo genero-desberdintasunen murrizketan eragiteko gaitasuna.

partzuergoa finantzatzeko eta Haurreskolak partzuergoaren 0-3 urteko eskolak doan izan daitezen; eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, zehazki Lanbide, hainbat diru-laguntza programa baititu (emakumeak eta gizonak eremu maskulinizatu eta feminizatueta prestatzeko eta kontratatzeko dirulaguntza; familia eta lana uztartzeko laguntzak, eta landa- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa).

### **Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak**

Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako identifikatutako aurrekontua 25.417.282 €-koa da 2025ean. Hau da, EAEko gastuen aurrekontu osoaren % 0,16.

Aurrekontuaren ia erdia, % 44,7, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarduketetara bideratua, Segurtasun Sailean biltzen da, eta % 97,8 segurtasun pribatura eta genero-indarkerian arreta espezializatua duen polizia bideratzen da.

### **Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jarduketak <sup>5</sup> eta genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dauden jarduketak<sup>6</sup>.**

Aurreko ekitaldietan bezala, eraginari buruzko txostenak nabarmentzen du zaila dela genero-ikuspegia zeharka txertatzea aurrekontuen kargura egingo diren jarduketan plangintzan. Hori dela eta, eta aurrekontua isolatzeko irizpide argirik ez dagoenez, txostenak jarduketetarako aurreikusitako kostuaren zifra globalak eskaintzen ditu, I. kapituluaren (Langileen gastuak) kargura dauden jarduketak kontuan hartu gabe, Emakunde izan ezik, haren aurrekontu osoa genero-ikuspegiarekin diseinaturik baitago.

Hala, 2025eko aurrekontuen kargura diren eta genero-ikuspegiarekin diseinaturik dauden jarduketan aurrekontua 1.083.390.305 €-koa da, aztertutako aurrekontuaren % 12 (erakundeen aurrekontua deskontatuta), eta genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dauden jarduketetarako aurrekontua, berriz, 562.068.035 €-koa.

Aurreko ekitaldietan bezala, Lanbide bere aurrekontu-bolumenagatik nabarmentzen da, genero-ikuspegiarekin diseinaturik dauden jarduketak guztien % 50 hartzen baitu.

---

<sup>5</sup> **Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jarduketak** dira emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak kontuan hartuta planifikatu direnak, baliabideetarako sarbidea baldintza berdinetan bermatzen dutenak eta benetako berdintasunerako bidean izandako emaitzak eta inpaktuak ebaluatzen dituztenak.

<sup>6</sup> **Genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesuan dauden jarduketak** dira etorkizunean jarduketa horiek genero-ikuspegiarekin diseinaturik egotea ahalbidetzen dutenak.

Eraginari buruzko txostenak adierazten duen bezala, genero-ikuspegia txertatzen duten politiken diseinuan aurrera egiteko ahalegina egin da; hala ere, eta emandako datuen arabera, lan handia dago egiteko, genero-ikuspegia EAErako 2025erako gastuen guztizko aurrekontuaren % 10,5ean soilik landuko baita.

### **Berdintasuneko ekintza positiboak<sup>7</sup>**

Eraginari buruzko txostenak taula bat dakar; sailek identifikatutako berdintasun-ekintza positiboak jasotzen dira horretan, baina ez ditu ekintza positibo horiei dagozkien aurrekontuak jasotzen. Aitzitik, soldata-arrakalaren, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta berdintasunera bideratutako beste jarduera batzuen tauletak aipatzen ditu. Adierazi dugun bezala, txosten hau egiteko denbora-mugak daudenez, ezin izan dugu aztertu aurrekontuaren zer zati bideratuko den ekintza positiboetara.

### **Sail bakoitzaren aurrekontu-programak**

Azkenik, eraginari buruzko txostenak sail bakoitzerako aurrekontu-programen azterketa xehatua egiten du.

Beste behin ere, aurreko ekitaldietan adierazi izan dugun bezala, komeni da erakunde honi nahitaezko txostena eskatzea aurrez. Egiaztapen-txostena egiteko eskatzen zaigun presak eragotzi egiten du Ogasun Sailak egindako eraginari buruzko txostenean jasotako aurrekontu-partiden azterketa sakonagoa egitea, eta horrek, aldi berean, zaildu egiten du ekarpenak egitea, txosten horretan jasotakoa adierazteaz harago. Hau da, egoera horren ondorioz, Emakunderentzat oso zaila da arretaz aztertzea aurkeztutako aurrekontu-partidek dauden desberdintasunak murrizten, handitzen edo mantentzen laguntzen ote duten; baliabide publikoek dauden arrakalak gutxitzearen alde zer neurritan laguntzen duten aztertzea; eta, era berean, euskal botere eta administrazio publikoen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurrien emaitzen jarraipena egitea zailtzen digu.

Alde horretatik, erakunde honek uste du beharrezkoa dela euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko duten konpromisoa bultzatzea eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontu orokorretan txertatzeko estrategiak berrikustea, bai eta

---

<sup>7</sup> **Ekintza positibotzat** hartzen dira bizitzako arlo batzuetan eta besteetan sexua dela-eta izan daitezkeen egiteko ezberdintasunak kendu edo ezabatze aldi baterako neurri espezifikoak, desberdinak emakumeentzat eta gizonentzat.

inplikaturako alderdiek egiten duten lan teknikoaren jarraipena eta balorazioa egiteko beharra ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen lege-aurreproiektuari dagokionez, txosten honen hasieran adierazi dugun bezala, aurrekontu horien garrantzia azpimarratu nahi dugu, legegintzaldi berriari hasiera ematen dioten aurrekontuak baitira. Bada, XIII. legegintzaldian, Administrazio Orokorraren sailen egitura eta sailen arteko eskumen-banaketa egokitu egin dira; hots, hamalau sail daude, aurreko legegintzaldian baino hiru gehiago.

Hori horrela, uste dugu oso garrantzitsua dela EAEko Administrazio Orokorraren, erakunde autonomoen eta, hala badagokio, sektore publikoko partzuergoen —lege-aurreproiektuaren 13. artikuluan jasotako alderdia— aurrekontu-plantillak aurrekontuan sartu eta onartzerakoan, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 11. artikularen arabera egitea. Artikuluaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean administrazio-unitate bat egongo da, eginkizun hauek betetzeko: saileko zuzendaritza eta arloak eta horri atxikitako erakunde autonomo, erakunde publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlanean aritzea, horrela Berdintasunerako Legean eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun planean xedatutakoa betetzeko.

Halaber, artikulua zera jasotzen du: Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako edota lotutako erakunde autonomo eta bestelako erakunde publikoek, 50 langile baino gehiago badituzte, beren egiturak egokitu behar dituzte, Berdintasunerako Legean eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun planean aurreikusitako neurriak bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitateak izateko.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 31an